

MAITASUNA GUDA ZELAIAN

GURASOEN MAITASUNA EZINTASUN GUZTIEZ GAINDI

Siddiq Hasan izena dut eta Sudanen bizi naiz, nire amarekin. Hemengo egoera ez da batere aldatu jaio nintzenetik, nahiz eta itxaropena oraindik galdu ez dudana.

Egia esan, ez dakit zehazki noiz jaio nintzen, ezta nire amak ere. Nire jomuga bakarra orain bizirik irautea da, egoera honetan erraza ez izan arren.

Nire ama Mirghani al-Bashir da eta aita joan baino bi egun beranduago sortutako gaixotasun bat dela eta ezin du oinez ibili. Nik, gutxienez, hori egin dezaket, zortea izan dut. Hala ere, ez dit batere laguntzen ama gaixorik egoteak. Gaixotasun horren erruz makina bat kilometro egin behar ditut bizitzeko behar ditudan ura eta janaria lortzearren.

Nire aitaren berririk ez dut. Bera, Ahmed Hasan da eta ni jaio eta egun batzuk beranduago joan omen zen gudara borroka egitera. Gezurra badirudi ere, bere begiradaz eta bere irribarrez oroitzen naiz. Nire amak behin eta berriz esaten dit nire antz izugarria zuela, ez dakit hori ona ala txarra ote den niretzat baina harro nago hori horrela izateaz.

Ama zaintzea ez dut batere gustuko, baina nire betebeharra dela onartzen dut; horregatik zaintzen dut ahalik eta hobekien. Gainera, aita hemen balego nitaz harro egongo litzatekeela iruditzen zait egiten ari naizen guztiagatik.

Ez dakit zer sentimendu sortzen ote didan aitaz oroitzeak. Ez diot gorrotorik, ziur bainago bakarrik utzi ninduenean pisuzko arrazoiak zituela egindakoa egiteko, baina jakin min handia dut zer gertatu ote zen jakiteagatik. Maiz jarri da nire garuna une horrekin amesten, ametsak amets izan ohi dira, ordea. Zoritxarrez egia ametsengandik urruntzen ahalegintzen da beti.

Ez dut uste nire zalantzak inoiz argituko direnik, ez naizelako amari galderarik egiten ausartzen. Aita aipatze hutsarekin bere begi diztiratsuak malkoz bustitzen dira eta nahiago izaten dut nire jakin mina isilean gorde, nire jakinmina amaren berebiziko min bilakatu baino.

MAITASUNA EZIN DESAGERRARAZI IZAN ZUEN EZTANDA

Abdel Hibrhimekin elkartzekoa nintzen. Nire txikitako lagunmina zen eta gutxitan izaten nuen berarekin hitz egiteko aukerik, gudan baitzegoen nire aita bezala. Abdelekin egoteko gogo handia nuen, azken aldi hartan ezin izan bainuen inorekin hitz egin, ezta inorekin jolastu ere.

Nire etxetik gertu dagoen kanpaleku izkutu baten atzean elkartzen ginen, egunez beti ere. Amak ez baitzidan gauetan etxetik kanpora irteten uzten. Bere esanetan, arrisku handia zegoen hor kanpoan (iluntasunagatik eta hotzagatik zioela uste dut). Gainera, Abdelek aspaldi esan zidan, gauetan ez irteteko kanpora eta nire obeharez esaten zidala hori. Nik ez nion garrantzi handiegirik ematen, ez bainuen inorekin gauean egoteko astirik.

Azkenean, iritsi zen Abdelekin egoteko momentua, irrika handiz egun haietan itxaron nuen momentua, hain zuzen ere. Ez dakit zergatik, baina berarekin egoten nintzen guztietan nire aitaren berriren bat jasoko nuela iruditzen zitzaidan, irudipen hutsa zen, inoiz betetzen ez zen irudipen hutsa.

Dagoeneko berandu zen eta Abdel ez zen oraindik agertu. Hotz handia egiten zuen han eta laster etortzea espero nuen. Kezkatzen hasia nengoen.

Nire kezkak Abdel agertzearekin batera desagertu ziren. Nire begirada bere begietan galdu zen lipar batez.

Begi ilunek zulo ilun, sakon eta amaigabeak ziruditen. Berriro ere nire kezka areagotzen hasi zen. Ea zer moduz zegoen galdetzeko ausardirik ez nuen izan, soilik besarkatu egin nuen, besterik ez. Besarkada hark luze iraun zuen, biok sentitzen baikenuen elkarrekin egoteko beharra. Badakit ez dudala besarkada hura inoiz ahaztuko.

Bere bizitzaren berri eman ondoren, jolastea erabaki genuen. Jolas berri bat erakutsi zidan Abdelek. Oso gustuko nuen jolas hura, guztiz dibertigarria zen. Baina tamalez, berehala iritsi zen amaiera.

Gorroto dut egun hura, ez dakit hitzez nola azaldu gertatutakoa, baina ahalik eta hobekien deskribatzen ahalegindu nahi nuke.

Abdelekin jolasean ari nintzela, soinu arraro bat entzun nuen bat-batean, berehala ohartu ginen biok gertatutakoaz, ezin nuen sinetsi. Etsipena, gorrotoa eta beldurra bihurtu ziren nire bihotzaren jabe une horretan. Bere bihotza entzuten nuen ordulari baten orratzak baino azkarrago taupadaka.

Dagoeneko berandu zen, ezin izan nuen ezer egin. Nire beldurrak oihu egitera bultzatu ninduen, baina alferrik. Nork entzungo ote zuen nire ohia? Nork egin zezakeen zerbait segundu gutxi barru gertatuko zena saihesteko? Etsipena, orixe da nire bihotzak sentitu zuena.

Irtenbiderik ez nuela garbi ikusi nuen. Nire lagunak urruntzeko eskatzen zidan behin eta berriz baina ez, ezin nion hori egin, nire benetako laguna zen, hainbatek inoiz ezagutu ez duten laguntasuna zer zen irakatsi zidana. Orduan, nire beldurrek nire maitasunaren aurka jokatu zuten, lasterka hasi nintzen. Zergatik? Hori ez dakit, baina damu naiz egindakoaz.

Eztanda entzun nuen, inguruan zuen guztia desagerrarazteko moduko eztanda. Eztanda hark nire lagunaren gorpua desagerrarazi zuen. Ez nuen nire laguna, edo huraz geratu zena, ikusteko adorerik izan. Egun hura nire bizitzako egunik latzena izan zen, ez dut bertan gertatutakoaz gogoratu nahi izaten baina zergatik ezkutatu nire iragana? Damu izateak ez du esan nahi egia ezkutatu behar dudarik, ez dut horrela uste behintzat.

Nire bizitza guztia gertatutakoaren errudun nagusiaren bila pasatu dut, baina nortzuk diren jakinik ere ezin dugu ezer egin haien aurka. Beraiek dute boterea eta gu beraien menpe gaude. Hala ere, ez dut galduko gauzak noizbait aldatuko diren itxaropena eta ahal dudan guztietan maite dudanagatik borrokatuko dudala agindu diot neure buruari.